

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Pasaiako Udala**

**Ayuntamiento de Pasaia**

**2017**



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>LABURTZAPENAK</b> .....	<b>7</b>
<b>I. SARRERA</b> .....	<b>9</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>11</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko Iritzia .....	11
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia .....	12
<b>III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI</b>	
<b>BURUZKO IRIZPENAK</b> .....	<b>13</b>
III.1 Aurrekontua eta Kontabilitatea.....	13
III.2 Zerga sarrerak.....	13
III.3 Langileria.....	13
III.4 Kontratazioa.....	14
III.5 Bestelakoak .....	15
<b>IV. FINANTZA ANALISIA</b> .....	<b>17</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>20</b>
V.1 Udala.....	20
V.2 Pasaiaiko Zaharren Udal Egoitza .....	23
V.3 Pasaia Musikal .....	25
V.4 Pasaiaiko Udal Euskaltegia .....	27
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>29</b>
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	29
A.2 Kontabilitatea eta Aurrekontuak .....	29
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	31
A.4 Transferentziek eta Diru-laguntzek eragindako sarrerak.....	33
A.5 Langile-Gastuak .....	34
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	36
A.7 Emandako transferentzia eta Diru-laguntzak.....	37
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez arrunta.....	38
A.9 Zorpetzea .....	40
A.10 Zordunak eta aktibo arrunteko beste kontusail batzuk .....	40
A.11 Hartzekodunak .....	42
A.12 Diruzaintza .....	42
A.13 Hirigintzako jarduerak eta planeamendua.....	42

A.14 Pasaia Zaharren Udal Egoitza .....	44
A.15 Pasaia Musikal .....	46
A.16 Pasaia Udal Euskaltegia.....	47
A.17 Pasaia Kirolaren Udal Patronatua .....	47
A.18 Kontratazioaren Analisia.....	48
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>51</b>

<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>67</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>69</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>	<b>71</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	71
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	72
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>73</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	73
III.2 Ingresos fiscales .....	73
III.3 Personal.....	73
III.4 Contratación .....	74
III.5 Otros .....	75
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO.....</b>	<b>77</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>80</b>
V.1 Ayuntamiento.....	80
V.2 Residencia Municipal de Ancianos de Pasaia .....	83
V.3 Pasaia Musikal .....	85
V.4 Pasaiko Udal Euskalategia.....	87
<b>ANEXOS .....</b>	<b>89</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	89
A.2 Contabilidad y presupuestos.....	89
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	91
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	93
A.5 Gastos de personal .....	94
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios.....	96
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas .....	97
A.8 Inversiones reales y activo no corriente .....	98
A.9 Endeudamiento .....	100
A.10 Deudores y otras partidas de activo corriente.....	100
A.11 Acreedores.....	102
A.12 Tesorería .....	102
A.13 Actuaciones urbanísticas y planeamiento.....	102
A.14 Residencia Municipal de Ancianos de Pasaia .....	104

A.15 Pasaia Musikal .....	106
A.16 Pasaia Udal Euskaltegia .....	107
A.17 Patronato Municipal de Deportes de Pasaia .....	107
A.18 Análisis de contratación .....	108
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>111</b>

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a  
Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 2019

**LABURTZAPENAK**

21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzkoa.
AEUA	Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua.
AO	Administrazio Orokorra.
AP	Aleko prezioak.
AS	Arau Subsidiarioak.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DBLO	15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoa.
EA	Erakunde Autonomoak.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAFA	Ekonomia-administrazioko Foru Auzitegia.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
ED	Errege Dekretua.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HABE	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiriko Hondakin Solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoyeraren gaineko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
KP	Kontratatzaillearen profila.
LE	2/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun higiezinaren gaineko zerga.

PFEZ	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
PGNP	Publikotasunik Gabeko Udal Ondarea.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TMIZ	Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.
XG	Xedapen gehigarria.



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Pasaiako Udalaren 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere erakunde autonomoen -Zaharren Udal Egoitza, Pasaia Musikal eta Pasaiako Udal Euskaltegia- aurrekontu-likidazioak, balantzeak ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontuak eta memoriak.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Pasaiako udalerriak 8.440 biztanle ditu 2017ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera eta bere egituran, Udalaz gain, honako hauek besarkatzen ditu:

- “Pasaiako Zaharren Udal Egoitza” fundazio publikoa, zaharrei zerbitzua eta laguntza emateko egitekoak gauzatzen dituena.
- “Pasaia Musikal” udalaren musika fundazioa, musikaren irakaskuntzarekin eta musika-kultura sustatu eta hedatzearekin lotutako egitekoak gauzatzen dituena.
- “Pasaiako Udal Euskaltegia” fundazio publikoa, helduen alfabetatze eta euskalduntzea eta euskararen erabileraren normalizazioa helburu dituena.
- “Pasaiako Kirolaren Udal Patronatua”, jarduerarik gabekoa.

Gainera, San Markoko Mankomunitatearen (hiri-hondakin solidoen kudeaketa) eta Añarbeko Uren Mankomunitatearen (uraren ziklo integralaren kudeaketa) atal da. Oarsoaldea, SAn ere % 25,9ko partaidetza ere badu (ikus A.8).



## **II. IRITZIA**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **PERSONAL**

1. Udalak iritzi zion 2017an bi langileri ordaindutako erretiro aurreratuko sariak -36.780 eurorenak- PFEZtik salbuetsitako laneko etekinak zirela (ikus A.5).

#### **KONTRATAZIOA**

2. Honako hauek aztertu dira: kontratu bat (11. espedientea A.18.1ean), Lanpostu Zerrenda eta Pasaia Musikalen plantilla (ikus A.15) eta ondorioztatu da kontratu horren helburua dela erakunde autonomoko langileen egiturazko beharrak betetzea, ez baititu jarduera garatzeko beharrezko diren baliabideak (Langileen Estatutuaren 43.2 artikulua).
3. 2017ko ekitaldian 3 zerbitzu-prestazioei zegozkien 1,4 milioi euroren gastuak egikaritu ziren, behin kontratuen iraunaldia amaitua zela (3, 10 eta 11 espedienteak A.18.1ean). Lehenengo bi kontratuetan gastua egikaritu da kontratu berriak indarrean sartu aurretik, 2017ko maiatzean eta ekainean esleitu zirenak, hurrenez hurren. Hirugarren kontratua, berriz, 1993az geroztik luzatzen ari da, zerbitzu-kontratueterako administrazioko kontratazio-arautegiak zehazten duen 6 urteko gehieneko iraunaldia nabarmen gaindituta.
4. Udalak eta Pasaiako Zaharren Udal Egoitza erakunde autonomoak zerbitzueterako prestazioei zegozkien gastuak kontratatu zituzten, hurrenez hurren 202.324 euroren eta 106.812 euroren zenbatekoan, esleipen-prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLTBren 86.2 artikuluan jasotakoa urratuta (ikus A.18.2).

Epaitegi honen ustetan, Pasaiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, letik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Uraren hornidura eta saneamenduari dagozkion sarrerak zuzen erregistratzeko, gehitu egin behar lirateke 2017ko abenduaren 31n aktibo arrunta eta balantzearen funts propioak 365.324 euroren zenbatekoan (ikus A.3).
2. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2017ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera jasotzen duten, ezargarriak zaizkion balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).
3. Pasaiako Zaharren Udal Egoitza, Pasaia Musikal eta Pasaiako Udal Euskaltegia udal erakunde autonomoen 2017ko abenduaren 31ko Balantzeen aktibo ez arruntak Udalak haiei lagatako eraikinen balioa soilik jasotzen du, 2016ko ekitaldi hasieran kalkulatu zena. Erakunde autonomoek ez dute ibilgetu hori amortizatzeko zuzkidurarik jasotzen.
4. Kontu Orokorrak ez ditu Pasaiako Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoaren kontularitzako egoerak barne hartzen, jarduerarik ez badu ere, desegin gabe dagoena (ikus A.17).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Pasaiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

### **III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

#### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2016ko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, 21/2003 FAren 15.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Pasaiaiko Zaharren Udal Egoitza eta Pasaia Musikal erakunde autonomoek 2017ko aurrekontuek ez zituzten nahitaezko langileriaren eranskinak jasotzen, aurrekontu-plantilla osatzen zuten lanpostuen zerrendarekin (21/2003 FAren 6.2.i artikulua).
- 2017ko ekitaldian Udaleko eta Pasaiaiko Udal Euskaltegia erakunde autonomoko funtzionarioen aurrekontu-plantillek ez dituzte kreditu zuzkidurak zerrendatzen oinarritzko ordainsari, lanpostu mailako osagarri eta berariazko osagarriaren arabera antolatuturik.
- Pasaiaiko Zaharren Udal Egoitza, Pasaia Musikal eta Pasaiaiko Udal Euskaltegia erakunde autonomoek ez dituzten zuzen kontabilizatu gastuaren baimen- eta erabilera-faseak, 21/2003 FAK xedatutakoari eta 2017ko ekitaldiko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan xedatutakoari jarraikiz.

#### **III.2 ZERGA-SARRERAK**

- Udalak ez dizkie zergapekoei berandutza interesak likidatzen epez kanpo egindako ordainketengatik, nahiz Udalbatzak onartutako zerga eta tokiko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza orokorrak eta GLHko martxoaren 8ko Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorraren 26. artikulua besterik xedatzen duen.

#### **III.3 LANGILERIA**

- Udalaren LZ ez zaio plantillako egiturazko beharrei egokitzen Oinarritzko Lanbide Heziketako Udal Institutuko langileriari dagokionez eta behar horiek aldi baterako kontratazio bidez asetzen ditu (ikus A.5).
- 2017ko ekitaldian Pasaiaiko Udal Euskaltegia erakunde autonomoak aldi baterako programak onartu zituen, nork bere aurrekontuko zuzkidura zuela, bi irakasle kontratatzea eskatzen zutenak, nahiz lanpostu zerrendak bi irakasle-postu huts barne hartzen zituen. Langile-behar hauek betetzeko hautatutako langileak, aldi baterakoak zirenak, urtero kontratatu ohi zituzten, 2004az geroztik bat eta 2008az geroztik bestea, betiere programa mota honen babesean.

### III.4 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak finkatu, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

#### Kontratazio espedienteak (ikus A.18.1)

Fiskalizatutako urtean indarrean zeuden hamaika kontratu aztertu ditugu, horietako zortzi Udalak berak esleitutakoak, bi Pasaia Musikal eta Pasaia Zaharren Udal Egoitzak eta beste bat Pasaia Musikalek; hona hemen azaleratu diren alderdi esanguratsuak:

- Udalak eta bere erakunde autonomoek esleitutako bost kontratutan honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
  - Hiru kontraturen pleguetan barne hartutako formula aplikatzean, horietako bat 1,3 milioi euroan esleitutakoak eta gainerakoak aleko prezioetan, prezio batek lizitazio-tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza-ekonomikoa irizpidearen balorazioan (3, 9 eta 10 espedienteak).
  - Guztira 421.111 euroan esleitutako 2 kontratutan (expedientes 4 y 5) prezio irizpidearen balorazioan puntuaziorik gorena ematen zitzaizen eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko portzentajezko 10 unitate baino merkatze handiagoak eskaintzen zituzten proposamenei eta horrek merkatze handiagoak eskuratzea zailtzen du.
  - 362.000 euroren zenbatekoan esleitutako kontratu baten pleguek esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen dute, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe (4. espedienteak).
- Hiru kontraturen pleguek -horietako bi 838.023 euroren zenbatekoan esleitutakoak eta hirugarrena, aleko prezioetan- ez zituzten apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agindutako hainbat ohar edo informazio jasotzen, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez (1, 2 eta 3 zk. espedienteak). Aipatutako kontratuen eta beste baten -1,3 milioi euroan esleitutakoa (10 zk. espedienteak)- esleipen ebazpenek ez zuten ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen, aipatutako arauak agintzen duen moduan.
- 59.111 euroan esleitutako kontratuetako baten pleguek (5. espedienteak) agintzen zuten aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar zela; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.
- Izaera pertsonaleko datuak tratatzea eragiten zuten lau kontraturen kasuan (3, 4, 5 eta 9 espedienteak), SPKLTBren hogeita seigarren XGan erabakitakoa hartu behar zatekeen aintzat, DBLOren 12.2 artikuluaurreikuspeni buruzkoa.

- Obra batean (2. espedientea), 436.888 euroan esleitu zena, kontratua gauzatu eta 23 hilabete igaro ostean lanak jaso gabe zeuden oraindik, nahiz kontratua presako prozedura baliatuta tramitatu zen eta 5 astean egiteko epea eman zitzaion.
- 401.135 euroan esleitutako beste obra-kontratu batean (1. espedientea) berandutzak izan dira kontratua betetzean eta ez da epe luzatzerik batere bideratu edo kontratua bertan behera utzi edo kontratugileari zehapenik batere ezarri. Obrak amaitzeko atzerapena bi hilabetekoa izan zen eta obra egiteko eman zitzaion epea, berriz, 13 astekoa.
- Aurreko paragrafoetan aipatutako bi obra kontratuetan, enpresa kontratistekin lan ziurtatuen gaineko desadostasunek atzerapenak eragin dituzte fakturak ordaintzean, zeinak, desadostasunak desadostasun, onartuak izan ziren (SPKLTBren 216. artikulua).
- Guztira 421.111 euroren zenbatekoan esleitutako bi kontratutan (4 eta 5 espedienteak), 2017an sinatu behar ziren luzapenak epez kanpo onartu ziren, luzatutako kontratuaren eta hasierako kontratuaren iraunaldia amaitua zela, hurrenez hurren.

### **Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua (ikus A.18.2)**

- Udalak ez ditu prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioko nahitaezko espedienteak izapidetu zenbait gasturen egikaritzan, 215.213 eurorenak.

## **III.5 BESTELAKOAK**

### **Udal erakunde autonomoen antolatu eta funtzionatzeko araubidea**

Udal erakunde autonomoek ez dituzte norik bere Estatutuetan jasotako zenbait atal bete, Udalbatzak onartutakoak:

- Erakunde Autonomoen Zuzendaritza Batzordeek ez zituzten 2017an bete izaera arrunteko bilkuren maiztasunari buruz bakoitzaren estatutuek agintzen dutena.
- Udal idazkariak Zaharren Udal Egoitza eta Pasaia Musikal erakunde autonomoen Zuzendaritza Batzordeetan idazkari lanak egiten dituzten pertsonenganako berariazko eskuordetzerik ez du egiten. Bada, Pasaia Musikalen, 2017an egindako bileretako batean, Zuzendaritza Batzordeko behin-behineko idazkari lanak egin zituen erakunde autonomoan administrazioko zuzendaritza, administrazioa eta musika irakaskuntzako zerbitzuak ematen zituen langile batek (ikus 11. espediente A.18.1en).
- Zaharren Udal Egoitza eta Pasaia Musikal erakunde autonomoetako Zuzendaritza Batzordeetan ez dago kontu-hartzaitzaren ordezkariarik.
- Pasaia Zaharren Udal Egoitza erakunde autonomoaren funtsen zaintza eta erabilera ez du Udalaren gordailuzainak egiten.

## **Zerbitzu mankomunatuak**

Udalak 2017ko ekitaldian San Markoko Mankomunitateari 549.812 euroren ekarpenak ordaindu dizkio hiri-hondakin solidoak eta biohondakinak kudeatzeko zerbitzua finantzatzeko, artatu edo desegiteko emandako tona hondakinen arabera, nahiz mankomunitateko estatutuek banaketarako irizpide bakar modura biztanle kopurua bereizten duten.

## **Pasaiako Portuko Agintaritzako eraikinak**

Udalak 2012ko urteaz geroztik prekarioan portuko jabari publikoko eraikin bat okupatzen du, horretarako gaitzen duen titulurik izan gabe eta ordainik ordaindu gabe; horren aurrean, Pasaiako Portuko Agintaritzak demanda bat jarri du bidegabeko aberastasunagatik eta 230.662 gehi berandutza interesak eskatzen dizkio. Badira, gainera, Pasaiako Portuko Agintaritzarekin berarekin beste auzi batzuk ere Udalak beste bi eraikinen alokairuagatik ordaindu beharreko kopuruen gainean.

## **Ondarea eta inbentarioa**

Udalaren azken inbentarioa 2015eko irailaren 29ko Udalbatzak onartu zuen eta ez dira orduz geroztik inbentarioaren urteko zuzenketa nahitaezkoak egin (ekainaren 13ko 1372/1986 EDren 33. artikulua, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena). Udalak ez du Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasun eta baliabideen zerrendarik (Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112.3 artikulua).

## **Gardentasuna**

Abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, udalek aldika-aldika eta modu eguneratuan argitara eman beharko dute informazioa, zeinaren ezagutza garrantzizkoa den euren jardueraren gardentasuna bermatzeko, jarduera publikoaren funtzionamendu eta kontrolari dagokionez. Lege hau zuzen betetzeko Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitorpenak.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	7.182	8.319	6.942	449	513	431
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	10.960	11.344	11.809	684	700	734
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	143	151	150	9	9	9
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>18.285</b>	<b>19.814</b>	<b>18.901</b>	<b>1.142</b>	<b>1.222</b>	<b>1.174</b>
Langile gastuak (1. kap.).....	8.327	8.487	8.698	520	524	540
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	6.110	6.041	6.116	382	372	380
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	2.490	2.581	2.556	155	159	159
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>16.927</b>	<b>17.109</b>	<b>17.370</b>	<b>1.057</b>	<b>1.055</b>	<b>1.079</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>1.358</b>	<b>2.705</b>	<b>1.531</b>	<b>85</b>	<b>167</b>	<b>95</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	55	16	11	3	1	1
<b>Emaizta arrunta.....</b>	<b>1.303</b>	<b>2.689</b>	<b>1.520</b>	<b>82</b>	<b>166</b>	<b>94</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	796	477	479	50	29	29
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>507</b>	<b>2.212</b>	<b>1.041</b>	<b>32</b>	<b>137</b>	<b>65</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	-	29	-	-	2
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	1.712	3.782	1.475	107	233	92
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	2.263	3.670	2.604	142	226	162
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	18	34	22	1	2	1
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza.....</b>	<b>(569)</b>	<b>78</b>	<b>(1.122)</b>	<b>(36)</b>	<b>5</b>	<b>(69)</b>
Eragiketa ez finantzar. emaitza (1etik 7rako kap.) .....	734	2.767	398	46	171	25
Diruzaintza Geldikina .....	1.694	3.344	3.463	106	206	215
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina .....	692	628	2.319	43	39	144
Zorpetzea.....	3.081	2.605	2.126	192	161	132

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 3ko igoera izan dute aztertutako aldian. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek aurreko ekitaldiaren aldean % 16 egin dute gora 2015ean eta % 16,6 murriztu dira 2017an, 2015ean izan zituztenak baino maila baxuagoetara etorri (aztertutako aldia % 3ko beheraldia). EIOZ kontzeptuan aitortutako sarreraren fluktuazioaren eragina kentzen badugu, aztertutako aldia sarreraren beheraldia are handiagoa da, ia % 6 eginez. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:
  - **Zerga zuzenak:** 2016ko ekitaldian zerga-sarrerak izandako igoera handia, zerga zuzenen kontzeptuko eskubide aitortuek izan duten bilakaeraren ondorio da, eta zehatzago, OHZk eta JEZk izan duten jokamoldearen ondorio. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokionez, adierazitako ekitaldian bi ikuskaritza-akta egin zitzaizkion Pasaiako Zentral termikoaren emakidadun izan zen enpresari,

174.686 eta 356.003 euroren zenbatekoan, eta horrek eragin nabarmena du bariazioan. OHZri dagokionez, 2015 eta 2017an erregistraturiko sarrera-gutxitzeak ekitaldi horietan portu eremuko higiezin jabeen egindako itzulketen ondorio dira (ikus A.3).

- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek apenas izan duten bariaziorik 2015 eta 2016ko ekitaldien artean, baina 2017ko ekitaldian % 8,5 egin dute behera. Beheraldi horretan eragin handiena duten sarrerak paperaren eta ontzi arinen salmentatik eratorritakoak dira; eta isun eta zehapenei dagozkienak.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Sarrera hauek % 8 egin dute gora aztertutako aldian, Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik eratorritako zerga itunduen kontzeptuan aitortutako sarrerek izan duten antzeko igoera, aintzat hartutako hiru ekitaldietan kapituluko sarrera guztien gainean % 86 baino gehiago egin dutenak. Gainerakoan, EAEtik eratorritako sarreretan ere igoerak izan dira (% 39), Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) lotutakoetan bereziki (% 80ko igoera), zeinak GFAtik jasotako gainerako transferentzia eta diru-laguntzei dagozkien sarrerek behera egin izanarekin berdindu direnak.

**Funtzionamendu gastuak:** Sarrera arruntek ez bezala, funtzionamendu gastuen bilakaera goranzkoa izan da eta % 3ko igoera izan du aztertutako aldian. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile gastuak:** 2016 eta 2017ko ekitaldietan gastu hauek, hurrenez hurren, % 2 eta % 2,5 inguru egin dute gora aurre-aurreko ekitaldien aldean. Esan behar da aipatutako ekitaldietan kapitulu honetan ebazpen judizialeatik eratorritako gastuak kontabilizatu direla, 52.803 eurorenak eta 107.257 eurorenak, hurrenez hurren (ikus A.5).
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** Aurrekontuko kapitulu honetan gastuak ez du ia aldaketarik izan aztertutako aldian eta 2017an 2015ean zuen maila berean eutsi dio.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Aztergai izan dugun aldian, kontzeptu honek eragindako gastuak % 2,5en gaineratik zertxobait igo dira. Bariazio esanguratsuenak termino absolutuetan Oarsoaldea, SAri eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) egindako ekarpenei dagozkie, zeinak hurrenez hurren murriztu eta gehitu diren % 19 eta % 27, kopuru oso antzekoan. Bestalde, gastuaren bilakaeran aparteko eragina du aztertutako aldian San Markoko Mankomunitateari egindako ekarpenek izan duten igoera.

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitudeek antzeko bilakaera izan dute, 2016an igoera esanguratsua izan dituztela aurreko ekitaldiaren aldean, zeinak hein batean 2017ko beheraldiekin arindu diren. Fluktuazio horiek, baina, are handiagoak dira aurrezki garbiaren kasuan, izan ere, aztertutako aldian % 100 baino igoera handiagoa izan du; alabaina, aurrezki gordina % 13 baino gutxiago hazi da.

**Kapital eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboak erakutsi ditu 2015 eta 2017ko ekitaldietan, bietan ere sortutako aurrezki garbia gainditzen dutenak. 2016ko ekitaldian, inbertsio errealeen zifra aurreko ekitaldiaren aldean % 62 handitzen den arren eta 2017an baino handiagoa ere den arren (% 41), kapitalezko eragiketen emaitza positiboa da, jasotako diru-laguntzen ondorioz. Aztertutako aldi guztia aintzat hartuta, sortutako aurrezki garbia arestian aipatutako kapital eragiketa negatiboaren emaitza baino handiagoa da.

**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** Positiboa izan da aztertutako aldi guztian, nahiz % 46 egin duen behera aldi horretan berean.

**Diruzaintza-geldikina:** Hau ere positiboa izan da epe guztian eta % 100etik gora hazi da.

**Zorpetzea:** % 31 egin dute behera aztertutako aldian egindako amortizazioen ondorioz.

**Ondorioa:** Horrek guztiak Udala kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak dituela eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko edo are, zorpetzearen egungo bolumena murrizteko.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen aurrekontuaren, zor publiko eta gastuaren arauaren helburuak bete zirela egiaztatuz. Txostenak Udalari eta bere organismo eta mendeko entitateei dagokienez ondotik zehaztutakoa jasotzen du 2017ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioari dagokionez:

- aurrekontu egonkortasunaren helburua bete dela, eragiketa ez finantzarioen superabita SEC terminoetan izan baitu.
- Ez da gastuaren araua bete, izan ere 2016ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak gainditu egin zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziazko hazkuntza tasa (% 2,1). Ez-betetzea diruzaintza-geldikina erabili izanaren ondorioz gertatu zen eta, honenbestez, plan ekonomiko-finantzario baten formulazioa ordeztu zen Udalbatzari jakinarazpena egitearekin, otsailaren 8ko 1/2013 FAREN 5.3 artikulua aurreikusten duena, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun gaietan babes finantzarioaren gaitasuna garatzen duena.
- Zor publikoaren helburua bete da, 2017ko abenduaren 31ko zor biziak ez baitu 2016an kitatutako sarrera arrunten % 77 gainditu.

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBR.	GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak .....	A.3	3.853	-	3.853	3.322	2.996	326	% 86
2. Zeharkako zergak .....	A.3	135	-	135	146	130	16	% 108
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	3.259	193	3.452	3.474	3.189	285	% 101
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	11.608	77	11.685	11.809	11.447	362	% 101
5. Ondare-sarrerak.....		144	-	144	150	136	14	% 104
6. Inbertsio errealak besterentzea.....		-	-	-	29	29	-	E/E
7. Kapital transferentziak .....	A.4	364	1.115	1.479	1.475	13	1.462	% 100
8. Aktibo finantzarioak .....	A.10	-	1.414	1.414	491	484	7	E/E
9. Pasibo finantzarioak.....		-	-	-	-	-	-	E/E
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>19.363</b>	<b>2.799</b>	<b>22.162</b>	<b>20.896</b>	<b>18.424</b>	<b>2.472(*)</b>	<b>% 101</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaturakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.5	8.661	62	8.723	8.698	8.658	40	% 100
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa	A.6	6.397	283	6.680	6.116	5.415	701	% 92
3. Gastu finantzarioak.....		12	-	12	11	11	-	% 92
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	2.744	95	2.839	2.556	2.337	219	% 90
5. Kreditu globala .....		123	(64)	59	-	-	-	E/E
6. Inbertsio errealak .....	A.8	925	2.412	3.337	2.604	2.168	436	% 78
7. Kapital transferentziak .....	A.7	22	-	22	22	22	-	% 100
8. Aktibo finantzarioak .....		-	11	11	11	11	-	% 100
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	479	-	479	479	479	-	% 100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>19.363</b>	<b>2.799</b>	<b>22.162</b>	<b>20.497</b>	<b>19.101</b>	<b>1.396</b>	<b>% 92</b>

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANS.	HASIER. ZORRA	KOBR./ BALIOG.	AZKEN ORDAIN. ZORRA
Ordaintzeko dauden saldoak.....	(2.951)	-	2.951	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(511)</b>	

KONPROMISO KREDITUEN EGOERA		Euroak milakotan				
Kapitulua	Eransk.	Hasierako kredituak	Aldaketa A2	Itxierako kredituak	Baimenduak	Hitzartuak
4.- Transferentzia arruntak.....	A.7	-	50	50	-	-
6.-Inbertsio errealak .....	A.8	-	714	714	714	529
<b>ETORKIZUNEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>-</b>	<b>764</b>	<b>764</b>	<b>714</b>	<b>529</b>

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	20.896
Obligazio aitortuak.....	(20.497)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>399</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(511)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(112)</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	235
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	156
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>279</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak (A.12) .....	2.546
Aitortutako eskubideengatiko zordunak (ikus A.10) .....	4.631
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.10) .....	1.227
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak (ikus A.11) .....	(1.396)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.11) .....	(1.223)
Aplikatu gabeko kontu-sailak (ikus A.10) .....	4
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZAZA-GELDIKIN GORDINA</b>	<b>5.789</b>
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10) .....	(2.326)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZAZA-GELDIKIN LIKIDOA</b>	<b>3.463</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza-geldikina .....	(1.144)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAZA-GELDIKINA 17.12.31-N</b>	<b>2.319</b>
<b>ZORPETZEA 17/12/31-N (ikus A.9)</b>	<b>2.126</b>

EGOERAREN BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>61.626</b>	<b>60.828</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>63.146</b>	<b>62.194</b>
lbilgetu ez-materiala .....	A.8	-	-	Ekarrirako ondarea.....		11.942	11.942
lbilgetu materiala .....	A.8	50.251	49.837	Sortutako ondarea .....		47.261	47.041
lbilgetuko inbertsioak.....	A.8	7.261	7.077	Ondare hazkund. zerga gabe.....		3.943	3.211
Taldeko enpresetan inbertsioak	A.8	4.081	3.881				
Beste inber. finantz. b. e/luz.	A.8	33	33				
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>A.11</b>	<b>1.678</b>	<b>2.162</b>
				Epe luzeko zorrak .....		1.678	2.162
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>6.265</b>	<b>8.477</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>A.11</b>	<b>3.067</b>	<b>4.949</b>
Salgai dauden aktiboak.....	A.10	147	147	Zorrak epe laburrera .....		1.530	3.066
Zordunak eta kobr. bst knt b.	A.10	1.784	3.802	Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....		1.537	1.883
Finan. inberts. epe labur.....	A.10	1.788	2.235				
Eskud. eta best. akt. baliokid.	A.12	2.546	2.293				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>67.891</b>	<b>69.305</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>67.891</b>	<b>69.305</b>

2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2017	2016
Zerga sarrerak.....		6.359	7.371
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....		12.553	11.331
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....		3	2
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		417	717
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>19.332</b>	<b>19.421</b>
Langileria-gastuak.....		(8.715)	(8.503)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....		(2.578)	(2.615)
Hornikuntzak.....		-	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....		(6.659)	(6.477)
lbilgetua amortizatzea.....		(1.446)	(1.297)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>(19.398)</b>	<b>(18.892)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>		<b>(66)</b>	<b>529</b>
Arruntak ez diren beste kontu sail batz. ....		43	672
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(23)</b>	<b>1.201</b>
Sarrera finantzarioak.....		30	93
Gastu finantzarioak.....		(11)	(16)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....		(47)	(602)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(28)</b>	<b>(525)</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>(51)</b>	<b>676</b>

## V.2 PASAIKO ZAHARREN UDAL EGOITZA

### 2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.14	510	-	510	535	462	73	% 105
4. Transferentzia arruntak .....	A.14	1.219	-	1.219	1.065	979	86	% 87
5. Ondare-sarrerak.....	A.14	49	-	49	47	42	5	% 96
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>1.778</b>	<b>-</b>	<b>1.778</b>	<b>1.647</b>	<b>1.483</b>	<b>164</b>	<b>% 93</b>

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak.....	A.14	384	-	384	374	374	-	% 97
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa		1.394	-	1.394	1.335	1.182	153	% 96
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>1.778</b>	<b>-</b>	<b>1.778</b>	<b>1.709</b>	<b>1.556</b>	<b>153</b>	<b>% 96</b>

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO	KOBR./	AZKEN	
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN. ZORRA	
Kobratzeko dauden saldoak .....	144	-	(130)	14
Ordaintzeko dauden saldoak.....	(51)	-	50	(1)
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>				<b>-</b>

### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	1.647
Obligazio aitortuak.....	(1.709)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(62)</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(62)</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>(62)</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak .....		121
Aitortutako eskubideengatiko zordunak.....		178
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak .....		-
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak.....		(154)
Hartzekodun ez aurrekontukoak .....		(25)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZTA-GELDIKIN GORDINA</b>		<b>120</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....		(13)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZTA-GELDIKIN LIKIDOA</b>		<b>107</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza-geldikina .....		-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA 17.12.31N</b>		<b>107</b>
<b>ZORPETZEA 2017/12/31N</b>		<b>-</b>

BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>1.800</b>	<b>1.800</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>1.907</b>	<b>1.983</b>
Ibilgetu materiala .....		1.800	1.800	Ekarrিতako ondarea.....		1.800	1.800
				Sortutako ondarea .....		107	183
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>286</b>	<b>259</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>179</b>	<b>76</b>
Zordunak eta kobratz. bst knt b.		165	144	Zorrak epe laburrera .....		2	1
Eskud. eta best. akt. baliokid...		121	115	Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....		177	75
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>2.086</b>	<b>2.059</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>2.086</b>	<b>2.059</b>

2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2017	2016
Zerga-sarrerak.....		496	494
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....		1.065	1.048
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		86	50
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>1.647</b>	<b>1.592</b>
Langileria-gastuak .....		(374)	(348)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....		(1.335)	(1.284)
Ibilgetua amortizatzea.....		-	-
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>(1.709)</b>	<b>(1.632)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(62)</b>	<b>(40)</b>
Arruntak ez diren beste kontu sail batz. ....		-	-
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(62)</b>	<b>(40)</b>
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....		(13)	-
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(13)</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(75)</b>	<b>(40)</b>



### V.3 PASAIA MUSIKAL

#### 2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE	KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.15	348	-	348	318	286	32	% 91
4. Transferentzia arruntak .....	A.15	587	-	587	575	337	238	% 98
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>935</b>	<b>-</b>	<b>935</b>	<b>893</b>	<b>623</b>	<b>270</b>	<b>% 96</b>

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak.....	A.15	217	-	217	213	213	-	% 98
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa		632	-	632	620	586	34	% 98
3. Gastu finantzarioak.....		3	-	3	-	-	-	E/E
4. Transferentzia arruntak .....		83	-	83	77	77	-	% 93
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>935</b>	<b>-</b>	<b>935</b>	<b>910</b>	<b>876</b>	<b>34</b>	<b>% 97</b>

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO	KOB.R./		AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	292	-	(285)	7
Ordaintzeko dauden saldoak .....	(78)	-	78	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>				<b>-</b>

#### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	893
Obligazio aitortuak.....	(910)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(17)</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(17)</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>(17)</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak .....		8
Aitortutako eskubideengatiko zordunak.....		277
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak .....		-
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak.....		(34)
Hartzekodun ez aurrekontukoak .....		(214)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZTA-GELDIKIN GORDINA</b>		<b>37</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....		(6)
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza-geldikina .....		-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA 17.12.31N</b>		<b>31</b>
<b>ZORPETZEA 2017/12/31N</b>		<b>-</b>

BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>1.545</b>	<b>1.545</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>1.576</b>	<b>1.599</b>
Ibilgetu materiala.....		1.545	1.545	Ekarritako ondarea.....		1.545	1.545
				Sortutako ondarea.....		31	54
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>279</b>	<b>341</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>248</b>	<b>287</b>
Zordunak eta kobratz. bst knt b.		271	292	Zorrak epe laburrera .....A.10		200	200
Eskud. eta best. akt. baliokid...		8	49	Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....		48	87
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>1.824</b>	<b>1.886</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>1.824</b>	<b>1.886</b>

2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2017	2016
Zerga-sarrerak.....		317	341
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....		575	589
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....		1	-
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>893</b>	<b>930</b>
Langileria-gastuak.....		(213)	(209)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....		(77)	(38)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....		(620)	(631)
Ibilgetua amortizatzea.....		-	-
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>(910)</b>	<b>(878)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(17)</b>	<b>52</b>
Arruntak ez diren beste kontu sail batz. ....		-	-
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(17)</b>	<b>52</b>
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....		(6)	-
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(6)</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(23)</b>	<b>52</b>

### V.3 PASAIKO UDAL EUSKALTEGIA

#### 2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.16	38	-	38	35	32	3	% 92
4. Transferentzia arruntak .....	A.16	465	-	465	461	377	84	% 99
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>503</b>	<b>-</b>	<b>503</b>	<b>496</b>	<b>409</b>	<b>87</b>	<b>% 99</b>

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.16	476	(17)	459	448	448	-	% 98
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa		15	17	32	26	20	6	% 81
3. Gastu finantzarioak.....		-	-	-	-	-	-	E/E
4. Transferentzia arruntak .....		12	-	12	11	11	-	% 92
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>503</b>	<b>-</b>	<b>503</b>	<b>485</b>	<b>479</b>	<b>6</b>	<b>% 96</b>

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO		KOBRA/ AZKEN	
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	75	-	(74)	1
Ordaintzeko dauden saldoak .....	(13)	-	12	(1)
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>	<b>-</b>			

#### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	496
Obligazio aitortuak.....	(485)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>11</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>11</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>11</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak .....		42
Aitortutako eskubideengatiko zordunak .....		88
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak .....		-
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak .....		(7)
Hartzekodun ez aurrekontukoak .....		(26)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZAZA-GELDIKIN GORDINA</b>		<b>97</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak .....		(2)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZAZA-GELDIKIN LIKIDOA</b>		<b>95</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza-geldikina .....		-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAZA-GELDIKINA 17.12.31N</b>		<b>95</b>
<b>ZORPETZEA 2017/12/31N</b>		<b>-</b>

BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>521</b>	<b>521</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>616</b>	<b>607</b>
lbilgetu materiala .....		521	521	Ekarritako ondarea .....		521	521
				Sortutako ondarea .....		95	86
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>128</b>	<b>125</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>33</b>	<b>39</b>
Zordunak eta kobratz. bst knt b.		86	75	Zorrak epe laburrera .....		-	-
Eskud. eta best. akt. baliokid...		42	50	Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....		33	39
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>649</b>	<b>646</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>649</b>	<b>646</b>

2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2017	2016
Zerga sarrerak .....		35	47
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak .....		461	440
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>496</b>	<b>487</b>
Langileria-gastuak .....		(448)	(446)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak .....		(11)	(11)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....		(26)	(34)
lbilgetua amortizatzea .....		-	-
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>(485)</b>	<b>(491)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>11</b>	<b>(4)</b>
Arruntak ez diren beste kontu sail batz. ....		-	-
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>11</b>	<b>(4)</b>
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....		(2)	-
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(2)</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>9</b>	<b>(4)</b>

## **ERANSKINAK**

### **A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA**

Pasaiaiko Udala Administrazioiko toki erakundea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek artikulatuan udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza itunpeko zergetan eta ez itunpekoetan.
- Ondare sarrerak.
- Diru-laguntzak.
- Kreditu eragiketak

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### **A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK**

2017ko ekitaldirako aurrekontua 2016ko abenduaren 20ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hil bereko 28an eman zen argitara. Jendaurrean agertzeko epean jarritako erreklamazio eta oharrak ebatzi ondoren, aurrekontua behin betiko onartu zen 2017ko otsailaren 20an eta GAOn hil bereko 22an eman zen argitara.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	KREDITU TXERTAKETA	KREDITU GEHIGAR.	KREDITUEN GAIKUNTZA	TRANSFER. GARBIAK	GUZTIRA
1. Langileria-gastuak .....	-	-	77	(15)	62
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa .....	38	84	115	46	283
4. Transferentzia arruntak .....	-	60	2	33	95
5. Kreditu globala .....	-	-	-	(64)	(64)
6. Inbertsio errealak .....	1.501	486	425	-	2.412
8. Aktibo finantzarioak .....	-	-	11	-	11
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.539</b>	<b>630</b>	<b>630</b>	<b>-</b>	<b>2.799</b>

Adierazitako aldaketak finantzatu ziren Diruzaintza-geldikinaren zati batekin 2016ko ekitaldi itxieran eta kapital-transferentzia bidez, hurrenez hurren 1,4 eta 1,1 milioi euroren zenbatekoan; baita, beste diru-sarrera txiki batzuekin ere.

Aurrekontuko aldaketa hauek % 14ko igoera eragin zuten eta hasiera bateko 19,4 milioi euroren aurrekontua izatetik 22,2 milioi euroren behin betiko aurrekontua izatera aldatu zen. Ekitaldian zehar aurrekontua aldatzeko 19 espediente izapidetu dira, guztiak ere gainerako Alkatetzaren Dekretu bitartez onartutakoak. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

PROIEKTUA	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
Molinao erreka inguruan hiri-hobekuntza .....	782
A.U.-Zamatete 02 – "Velasco" Egikaritza Unitatean lanak .....	403
Alabortza kala berreskuratzea .....	184
HAPO .....	90
Bestelako txikiago batzuk .....	80
<b>TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>1.539</b>
Liburutegiko altzariak .....	137
Udal-hiltegia egokitzea .....	150
Pantalana .....	100
Ordezko egikaritzak .....	90
Gizarte-larrialdiko gastuak .....	60
Bestelako txikiago batzuk .....	93
<b>KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>630</b>
Don Bosco futbol zelaia berritzea .....	259
Donibaneko itsasertzeko sarbideak konpontzea .....	79
Funtzionarioen ordainsariak .....	77
Ondartxoko pasealekua urbanizatzea .....	71
Bestelako txikiago batzuk .....	144
<b>GAIKUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>630</b>

Gainera, kredituak aldatzeko erregimenaren bitartez etorkizuneko gastuei loturik 764.206 euroren konpromiso-kredituak sortu ziren, guztiak ere 2018ko urtekoari zegozkionak.

2017ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2018ko martxoaren 22ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2018ko ekainaren 26ko Udalbatza bitartez.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2017ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrereren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	1.838
TMIZ.....	837
HILBIZ.....	423
JEZ.....	224
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>3.322</b>
EIOZ.....	146
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>146</b>
Uraren hornidura eta saneamendua.....	1.154
Hondakinen bilketa.....	982
Isunak.....	158
Jabetza publikoaren erabilera pribatiboa.....	142
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaileen alde.....	114
Arrokaundieta aterpetxea.....	113
Hirigintzako espedienteak izapidetzea.....	103
Aurreko kontratistari eragitea bide-garbiketa zerbitzuaren kalte-ordainen kostua (ikus A.5).....	77
Bestelako txikiago batzuk.....	631
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.474</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>6.942</b>

Udalak bere gain hartu du atxikitako taulan jasotako zerga, tasa eta diru-sarrereren kudeaketa borondatezko aldian eta GFArekin lankidetzaz-hitzarmena du diru-bilketa epe exekutiboan egiteko.

Horiek kontabilizatzeari dagokionez, 2017ko ekitaldi itxieran zorpetutako eta kontabilizatu gabeko sarrerak zeuden, ur-hornidura eta saneamenduari zegozkionak 365.324 euroren zenbatekoan (ikus II.2 atala).

## OHZren itzulketak

Pasaiako portuko zerbitzu-gunearen Antolamendu Plan Berezia onartu ondoren (ikus A.13), GFak gaurkotu egin zituen Planaren aplikazio-eremuan barne hartutako lursailen katastro-balioak. Eraginpeko jabeetako batzuek gaurkotzea errekurritu egin zuten, balio-ponentzia baten bidez egin ez zelako, eta errekurtsio-gai izan ziren 2012ko katastro-balioak finkatzeko egintza guztiak baliogabe utzi ziren epai bidez. Gerora, errekurtsio gehiago jarri ziren 2013 eta ondoko urteetako katastro-balioak finkatzeko egintzen aurka, eta emaitza berbera jaso zuten.

Udalak zegozkion lursailen ondasun higiezinaren gaineko zerga kalkulatzeko GFak onartutako katastro-balioak baliatu zituen eta honenbestez, horiei zegozkien likidazioak baliogabetu eta berriz egin behar izan zituen zuzendutako balioen arabera. Honekin baterako taulan erakusten da zuzenketak eragin duen sarreraren murrizketa garbia, jatorrizko likidazioen eta zuzendutakoaren arteko aldearekin kalkulaturik:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
OHZ 2012.....	142
OHZ 2013.....	225
OHZ 2014.....	215
OHZ 2015.....	218
OHZ 2016.....	221
<b>SARREREN MURRIZKETA GARBIA GUZTIRA</b>	<b>1.021</b>

Horri gehitu behar zaizkio dagozkion berandutza interesak, 107.000 euro inguru egin dutenak.

Kontularitzan erregistratzeari dagokionez, 2012ko urteko OHZren likidazioen itzulketak gehienak 2015eko ekitaldian kontabilizatu ziren eta gainerakoaren bolumenik handiena, 2017an.

Zenbait lursailen 2017ko katastro-balioak finkatzeko egintza batzuk ere errekurritu egin dira eta ez dakigu horrek OHZren likidazioetan izan dezakeen eragina, nahiz oraingoan GFak egin duen nahitaezko balio-ponentzia.



#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2017ko ekitaldian transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEKOAK
<b>Estatuko Administrazioetik</b>	<b>19</b>	<b>2</b>
<b>EAetik</b>	<b>887</b>	<b>11</b>
AO: lanerako prestakuntzako lantegiak.....	311	-
AO: GLL.....	311	-
AO: Udalaren haur-eskolak .....	118	-
AO: Inmigrazio-plana .....	69	-
AO: Molionaon kutsatutako lurak .....	36	-
Beste txikiago batzuk .....	42	11
<b>ALHtik</b>	<b>10.903</b>	<b>1.462</b>
Zerga itunduetan partaidetza UFFF.....	10.280	-
GFA Zenbait inbertsioren egikaritzea finantzatzeko hitzarmena, 2017.....	-	701
GFA Etxez etxeko laguntza.....	405	-
GFA Kirol-ekipamenduen plana (*) .....	-	259
GFA Kultur etxeak.....	-	200
GFA Ondartxo paseal. lanen eta Donibanen itsasertzeko irispideen finantz. (*) .	-	150
GFA Aterpetxea berritzea.....	-	149
GFA Gizarte zerbitzuen funtsa .....	80	-
Beste txikiago batzuk .....	138	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.809</b>	<b>1.475</b>

(\*) Urteanitzeko jarduerak finantzatzen dituzten diru-laguntzak (ikus A.8).

FPEBk 2017ko urriaren 11n erabaki zuen lurralde historikoak 91,6 milioi euroren zenbatekoarekin konpentsatzea, 2017ko maiatzaren 17ko Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak hartutako erabakien eredura txertatzeak Euskal Herriko erakundeetan izan duen eragin ezberdina berdintzearen. GLHri 30,1 milioi euro zegozkion eta horietatik udalei 28 milioi euro esleitu zitzaizkien, 2017ko ekitaldiko Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren likidazioaren saldo negatiboaren pareko kopurua, zeinarekin berdindua geratu zena.

## A.5 LANGILE-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZIO AITORT. 2017	OBLIGAZIO AITORT. 2016	LANPOSTU KOP. LZ	PLANTILLA
Zinegotzien ordainsariak.....	229	234	E/E	8
Bitarteko langileen ordainsariak.....	30	30	1	1
Funtzionarioen ordainsariak.....	6.440	6.330	177	(*) 206
Aldi baterako lan kontratuko lang. ordains. ....	56	50	-	2
Gizarte Segurantzza.....	1.769	1.676		
Elkarkidetzak.....	116	118		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	58	49		
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.698</b>	<b>8.487</b>	<b>178</b>	<b>217</b>

(\*) 111 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

### Ordainsariak

Udalak 2017an ordaindutako ordainsariak % 1eko igoera izan zuten aurreko ekitaldiarekiko, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.2 artikulua finkatzen duen mugaketa gordez.

2017ko ekitaldian kontabilizatutako funtzionarioen ordainsariak bi langileri ordaindutako borondatezko erretiro-sariak jasotzen dituzte, 36.780 eurorenak, 2017ko ekitaldian indarreko lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenean (Udalhitz) horri dagokionez jasotako aurreikuspenak aplikatuta.

2017ko ekitaldian funtzionarioen ordainsarien kontzeptuan aitortutako obligazioen zenbatekoak, gainera, beste 107.257 euro barne hartzen ditu, Pasaiako udalerrian udal-zerbitzu bilakatu aurretik bide-garbiketa zerbitzua ematen zuen enpresako langileei ordaindutako lanuzteagatiko kalte-ordainei dagozkienak; horri guztiari, 2016an kontzeptu beragatik kontabilizaturiko beste 52.803 euro gehitu behar zaizkio. Udalak kalte-ordain horien kostua bere gain hartu behar izan du, Udalaren konturako bidegabeko kaleratzeak direla ebatzen duten hainbat ebatzen judizial aplikatuta, zerbitzua ematen zuen enpresa absolbitzen dutenak. Alabaina, Udalak aipatutako enpresak langileei ordaindutako kopuru guztia likidatu dio.

2017ko ekitaldian kontabilizatutako aldi baterako lan-kontratuko langileen ordainsarietan aurreko paragrafoetan aipatutako kaleratzea jasan duen langile batenak daude, izan ere kalte-ordaina eman beharrean berriz onartu zuten plantillan, eta baita Oinarrizko Lanbide Prestakuntzarako Udal Institututuko arduradunarenak ere. Azken langile honek aldi baterako kontratua izenpetu zuen 1990ean eta harrezkero, luzatu egin da behin eta berriz.

## LZ eta plantilla

2017ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak .....	-	(*) 4
Bitarteko funtzionarioak .....	66	67
<b>GUZTIRA</b>	<b>66</b>	<b>71</b>

(\*) Lanerako ezintasun iraunkorragatik erretiro aurreratua, berrikusi beharrik gabea; borondatezko bi erretiro eta heriotza bat.

Oinarrizko Lanbide Prestakuntzarako Udal Institutuko irakasleak kontratazko Udalak programako bitarteko funtzionario figura baliatzen du, lanpostu horiek ez baitaude lanpostu zerrendan jasoak.

## A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan Obligazio aitortuak
<b>Errentamenduak</b>	<b>145</b>
<b>Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza</b>	<b>729</b>
Azpiegitura eta ondasun orokorrak .....	127
Eraikin eta bestelako eraikuntzak .....	96
Makineria, instalazio eta tresneriarena .....	382
Beste ibilgetu bat .....	124
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>79</b>
<b>Hornidurak</b>	<b>1.170</b>
Energia elektrikoa .....	445
Ura (Ikus .....	508
Gasa eta erregaiak .....	129
Bestelako hornigaiak .....	88
<b>Komunikazioak</b>	<b>219</b>
Telefono bidezko komunikazioak .....	147
Posta bidezko jakinarazpenak .....	72
<b>Garraio-zerbitzuak</b>	<b>6</b>
<b>Aseguru sariak</b>	<b>82</b>
<b>Mantentze-lanetarako materiala</b>	<b>3</b>
<b>Hainbat gastu</b>	<b>711</b>
Herriko jaiak eta ospakizunak .....	180
kultura jarduerak .....	95
Euskara sustatzeko jarduerak .....	92
Bestelako hainbat gastu .....	344
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b>	<b>2.955</b>
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (*) .....	767
Hiri hondakin solidoen kudeaketa .....	555
Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzea ingurune irekian bazterkeria-arriskuan dauden gazte eta adingabeekin (*) .....	183
Pasaiaiko udal haur-eskolaren kudeaketa (*) .....	170
Udal ludoteken kudeaketa .....	144
Familiak esku hartze programak .....	129
Arrokaundieta Udal Aterpetxearen kudeaketa eta animazioa (*) .....	103
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk .....	904
<b>Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak</b>	<b>17</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.116</b>

(\*) Aztertutako kontratuak A.18an.

## A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZAK

2017ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta diru-laguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan	
	4. KAP.	7. KAP.
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	<b>1.301</b>	<b>-</b>
Oarsoaldea, SA: urteko ekarpena (2).....	481	-
Pasaia Musikal: gastu arrunta finantzatzeko ekarpena eta diru-laguntzak (2) (ikus A.15).....	337	-
San Markoko Mankomunitatea: ekarpen arrunta (2).....	260	-
Pasaia Udal Euskaltegia: gastu arrunta finantzatzeko ekarpena (2) (ikus A.16).....	115	-
Talde politikoei ekarpenak (2).....	50	-
Pasaia zaharren udal egoitza: gastu arrunta finantzatzeko ekarpena (2) (ikus A.14).....	40	-
Beste txikiago batzuk (3 erakunde).....	18	-
<b>IZENDUNAK</b>	<b>287</b>	<b>-</b>
Pasaia-Lezo Lizeoa, irakaskuntzako koop. (2).....	140	-
Badia Plazan Kultur Elkartea (2).....	45	-
Trintxerpe Kirol Kluba.....	30	-
Beste txikiago batzuk (11 onuradun).....	72	-
<b>HITZARMENAK</b>	<b>21</b>	<b>-</b>
<b>LEHIA</b>	<b>819</b>	<b>22</b>
Gizarte larrialdietarako laguntzak (1) (2).....	570	-
Liburuak erosteko eta eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak (2).....	65	-
Kirol-jardueretarako diru-laguntzak, 2017 (2).....	61	-
Gazte erakundeen jardueretarako diru-laguntzak 2017.....	45	-
Beste txikiago batzuk (8 diru-laguntza lerro).....	78	22
<b>ZUZENAK</b>	<b>91</b>	<b>-</b>
Pasaia-Lezo Lizeoa, irakaskuntzako koop.: Eskola-kirola (2).....	27	-
Beste txikiago batzuk (10 onuradun).....	64	-
<b>BESTE BATZUK</b>	<b>37</b>	<b>-</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.556</b>	<b>22</b>

(1) EAEk partzialki finantzaturako programak (ikus A.4).

(2) Aztertutako transferentzia eta diru-laguntzak.

Atxikitako taulan zerrendatutako gastuez gain, 2017ko ekitaldi itxieran Udalak 50.000 euroren etorkizuneko gastu-konpromisoa zuen erregistratua, Pasaia 2018ko Itsas Festibala finantzatzeko.

## A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ ARRUNTA

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2017ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 17/01/01	ALTAK	BAJAK	AMORTIZ. ZUZK.	SALDOA 17/12/31
IBILGETU UKIEZINA	-	63	(63)	-	-
IBILGETU MATERIALA	49.837	3.200	(1.340)	(1.446)	50.251
Lursailak eta ondare naturalak .....	-	-	-	-	-
Eraikuntzak.....	37.159	537	(244)	(78)	37.374
Azpiegiturak.....	11.478	1.359	(108)	(1.233)	11.496
Ondare historikoko ondasunak .....	-	-	-	-	-
Bestelako ibilgetu materiala .....	1.200	1.304	(988)	(135)	1.381
IBILGETUKO INBERTSIOAK	7.077	184	-	-	7.261
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	-	430	(430)	-	-
TALDE/TALDE ANITZ./ELKAR. ENPRESEN FINAN. INBER.	3.881	315	(115)	-	4.081
EPE LUZEKO BESTELAKO FINANTZA-INBERTSIOAK (*)	33	-	-	-	33
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	60.828	4.192	(1.948)	(1.446)	61.626

(\*) Epe luzerako gordailuak eta fidantzak.

### Ibilgetua, inbertsio higiezinak eta lurraren ondare publikoa

Udalak idazpuru hauetan erregistraturiko ondasun eta eskubideen balorazioak berrikusi zituen, 2016ko ekitaldian abenduaren 15eko 86/2015 FD indarrean sartuko dela aintzat hartuta, zeinaren bidez Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako esparru arautzailea onartzen den. Aktibo ez arruntak txertatzen ditu Udalak aipatutako Foru Dekretuaren zehaztapenei jarraikiz balioztatu ahal izan zituen ondasun eta eskubideak; ez, baina, dekretuan jasotako balorazio-irizpideen arabera arrazoizko balioa esleitzerik izan ez zitzaizen aktiboak. Horixe da lursailen edo ondare historikoko ondasunen kasua, balantzean ageri ez direnak. Ibilgetu materialak ere ez du jasotzen Udalak portu aldean okupatzen duen eraikin bat (ikus II.1 atala), nahiz ezargarrria den araudiaren arabera, egokia litzatekeen horiek jasotzea. LOP osatzen duten ondasunak ere ez dira balantzeko idazpuru bereizi batean kontabilizatzen, ez baitago horien inbentarioa besarkatuko duen ustiaketa erregistrorik.

Idazpuru hauetan erregistraturiko altek barne hartzen dituzte bai gastuen aurrekontuko inbertsio errealeen kapituluan erregistraturiko inbertsioak bai birsailkapenak ere. Alta eta baje kopuru garbia ez dator bat adierazitako kapituluan aitortutako gastuekin, ezen egindako inbertsioen zati bat, 559.425 eurorena, ondarean gastuetan erregistratu baita.

Udalak 2017ko ekitaldi itxieran 714.206 euroren etorkizuneko gastu-konpromisoak zituen erregistratuak, honako urteanitzeko inbertsioei zegozkienak:

	Euroak milakotan		
	2018KO URTEKOA		
	B.betiko kred.	A fasea	D fasea
Ondartxoko pasealekuaren urbanizazioa .....	520	520	403
Donibaneko itsasertzera sarbideetan konponketa-lanak .....	83	83	59
Don Bosco futbol zelaiko belar artifiziala berritzea.....	111	111	67
<b>GUZTIRA</b>	<b>714</b>	<b>714</b>	<b>529</b>

Arestian adierazitako inbertsio guztiak GFak finantzatu ditu, lehenengo biak diru-laguntza zuzen bitartez, 2017ko urriaren 17ko aldundiko Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez emandakoak, eta hirugarrena, "Gipuzkoarentzat Kirol-ekipamenduen Plana 2017-2020"ko diru-laguntzen deialdiaren babesean emandakoa. Onartutako konpromiso kredituen zenbatekoa bat dator 2018ko ekitaldian jasoko diren diru-laguntzekin, emakida erabakietan jasotako aurreikuspenen arabera.

## Epe luzeko finantza-inbertsioak, talde, talde aniztun eta elkartuetako enpresetan

Hona hemen 2017ko ekitaldian izan duen mugimendua:

PARTAIDETUTAKO ERAKUNDEA	Euroak milakotan				
	% PARTAID. 17/12/31	SALDOA 17/01/01	BALORAZ. ZUZENK.	NARRIAD.	SALDOA 17/12/31
<b>FINANT. INBERTS. ZUZENBIDE PUBLIK. ERAKUNDEETAN</b>		3.866	315	(115)	4.066
Pasaiaiko Zaharren Udal Egoitza.....	% 100	1.800	222	(115)	1.907
Pasaia Musikal .....	% 100	1.545	2	-	1.547
Pasaiaiko Udal Euskaltegia .....	% 100	521	91	-	612
<b>FINANT. INBERTS. SOZIETATEETAN</b>		<b>15</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>15</b>
Oarsoaldea, SA .....	% 25,9	15	-	-	15
<b>TALDE/TALDE ANITZ./ELKAR. ENPRESEN FINAN. INBER.</b>		<b>3.881</b>	<b>315</b>	<b>(115)</b>	<b>4.081</b>

2017ko ekitaldian udal erakunde autonomoetako partaidetzak atxikitako higiezin kontularitzako balio garbiarekin zeuden balioztatuak hasiera batean; ordea, balorazio horietan zuzenketak egin ziren entitate partaidetuen ondare garbien arabera. Ekitaldi itxieran kalkulatu egin zen partaidetza horien aldean izan zuten narriadura, ezargarria zaien kontularitzako araudiaren zehaztapenei jarraikiz.

## A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

Euroak milakotan							
	% interesa	Iraung.	Hasierako saldoa	Saldoa 16/12/31n	Amort.	Berriak	Saldoa 17/12/31
BBVA, SA.....	Euribor Anual	2020	2.201	688	183	-	505
Caixabank, SA .....	Euribor 12M + 0,05	2021	2.474	952	190	-	762
Caja Rural de Navarra S. Ccop..de crédito	Euribor 3M + 1,7	2026	969	711	74	-	637
Caja Rural de Navarra S. Ccop..de crédito	Euribor 3M + 1,95	2024	321	254	32	-	222
<b>BANKU-MAILEGUAK (I)</b>			<b>5.965</b>	<b>2.605</b>	<b>479</b>	<b>-</b>	<b>2.126</b>

## A.10 ZORDUNAK ETA AKTIBO ARRUNTEKO BESTE KONTUSAIL BATZUK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2017ko ekitaldi itxieran:

Euroak milakotan					
KONTZEPTUA	AURREK. ZORDUNAK	ZORDUN EZ AURREK.	APLIKATU GABEBESTE BATZ.	SALDOA 17/12/31	
Salgai dauden aktiboak.....	-	-	-	147	147
Zordunak eta kobratz. bste knt. btzu e/lab.....	1.553	227	4	-	1.784
Epe laburreko finantza-inbertsioak.....	752	1.000 (*)	-	36	1.788
<b>ZORDUNAK ETA BESTE AKTIBO BATZUK GUZTIRA</b>	<b>2.305</b>	<b>1.227</b>	<b>4</b>	<b>183</b>	<b>3.719</b>

(\*) Diruzaintzako soberakinak kolokatzeko finantza-kontuak.

Zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen zatirik handiena, 200.000 euroren zenbatekoan, Udalak Pasaia Musikali 2017ko ekitaldian emandako diruzaintzako hiru aurrerakini dagozkio; erakunde autonomoak 2018ko ekainean oso-osorik itzuli du.



## Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehakapena:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2014 eta lehen.	2015	2016	2017	GUZTIRA
Zerga zuzenak .....	288	110	290	326	1.014
Zeharkako zergak .....	5	1	2	16	24
Tasak eta bestelako sarrerak .....	313	81	299	285	978
Transferentzia arruntak .....	-	-	7	362	369
Ondare-sarrerak .....	13	4	1	14	32
Inbertsioen besterentzea .....	742	-	-	-	742
Kapital transferentziak .....	-	-	-	1.462	1.462
Aktibo finantzarioak .....	-	-	3	7	10
<b>AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA</b>	<b>1.361</b>	<b>196</b>	<b>602</b>	<b>2.472</b>	<b>4.631</b>
<b>Kredituen balioaren narriadura epe laburrera</b>					<b>(2.326)</b>
<b>AURREKONT. ZORDUNAK GUZTIRA, NARRIADURA KENDUTA</b>					<b>2.305</b>

21/2003 F Aren 48.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak nekez kobragarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak. Kobratzeko dauden gainerako eskubide aitortuei dagokienez, nekez kobragarria edo ezinezkoa den zenbatekoa balioesteko, orokorrean, diru-bilketako datu historikoak erabili ohi dira, nahiz saldo nagusien azterketa banakakoak egiten diren.

## Beste batzuk

2016an Udalak ondasun jakin batzuk oinordetzan jaso zituen; hona hemen horien xehakapena eta bilakaera 2017ko ekitaldian:

KONTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 17/01/01	BAJAK	SALDOA 17/12/31
Salmentarako aktiboak: (oinordetzan jasotako eraikinak) .....	147	-	147
Finantza-inbertsioak epe laburrera: (oinordetzan jasotako eskudirua, baloreak eta eskubid.) .....	481	(445)	36
<b>GUZTIRA</b>	<b>628</b>	<b>(445)</b>	<b>183</b>

Taulan jasotako bajak oinordetzan jasotako aktiboen zati baten kontularitzako balio garbiari dagozkio, ekitaldian besterendu zirenak, 479.954 euroren zenbatekoan. Kopuru hori sarreraren aurrekontuko 8. kapituluaren kontabilizatu zen, langileei emandako aurrerakinen itzulketei zegozkien beste sarrera txiki batzuekin batera.

## A.11 HARTZEKODUNAK

Hona hemen Balantzeko kontu pasiboen 2017ko abenduaren 31ko xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	PASIBO ARRUNTA	PASIBO EZ ARRUNTA	GUZTIRA 17/12/31
<b>HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK</b>	<b>1.191</b>	<b>32</b>	<b>1.223</b>
Jasotako fidantzak eta gordailuak .....	615	32	647
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzek.....	314	-	314
Gizarte Segurantza hartzekoduna .....	193	-	193
Elkarkidetza .....	32	-	32
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak .....	37	-	37
<b>AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.396</b>	<b>-</b>	<b>1.396</b>
<b>BANKUKO ZORPETZEA (ikus A.9)</b>	<b>480</b>	<b>1.646</b>	<b>2.126</b>
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>3.067</b>	<b>1.678</b>	<b>4.745</b>

## A.12 DIRUZAINITZA

Ekitaldi itxieran Udalaren Diruzaintza honako xehakapenaren arabera zegoen osatua:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Saldoa 17/12/31	
Kutxa .....	-	
Kontu korronteak .....	2.528	
Diru-bilketako bitarteko kontuak .....	18	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.546</b>	

Gainera, Udalak ekitaldi itxieran saldoak zituen diruzaintza-soberakinak kolokatzeko finantza-kontuetan, guztira 1 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.10).

## A.13 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANEAMENDUA

Diputatuen Kontseiluak 1996ko ekainaren 11n egindako bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Pasaiako Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioak, nahiz erabaki horrek berak bertan behera uzten zuen behin betiko onespena Hego Antxo 01 "Luzuriaga" Hirigintzako Areari zegokion atalean. Aldaketa egokiak egin eta aginduzko tramiteak bete ondoren, 1997ko irailaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez behin betiko onartu ziren Pasaiako Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren testu bategina, urte bereko urriaren 31ko GAOn argitara eman zena. Onespenak hainbat baldintza jasotzen zituen, honako hauei buruzkoak:

- Donostia-Hendaia trenbidearen trazadura, etorkizunean litekeena da zabaltzea.
- Portuko zerbitzu-eremu osoa portuko sistema orokor modura kalifikatzea.
- Jaizkibel mendia Baso Erabilerako Lurzoru kalifikatzea, Onura Publikoko Mendien Katalogoan jasoa baitago.
- Hego Antxo 01 “Luzuriaga” Hirigintzako Area kudeatzeko baldintzak berriz aztertzeko aukera Barne Erreformatarako Plan Berezian.

Orduz geroztik igarotako aldia, berebat, zenbait aldaketa jakin onartu dira, jarduera unitate batzuetan eragina izan dutenak.

### Pasaiako Portuko zerbitzu-gunearen Antolamendu-Plan Berezia

Diputatuen Kontseiluak 2010eko abenduaren 21ean egindako bilkuran Pasaiako Portuko zerbitzu-gunearen Antolamendu-Plan Berezia testu batekina behin betiko onartzeko erabakia hartu zuen, GAO n 2011ko urtarrilaren 11n argitaratu zena. Lurraldearen Mugikortasun eta Antolamenduko foru diputatuaren 2017ko urtarrilaren 3ko Foru Agindu bitartez, berriz, behin-behinean onartu zen “Pasaiako Portuko zerbitzu-gunearen Antolamendu-Plan Berezia Berrazterketa”. Zegozkion izapideak bete eta beharrezko ziren txosten eta baimenak eskuratu ondoren, “Pasaiako Portuko zerbitzu-gunearen Antolamendu-Plan Berezia Berrazterketaren” behin betiko onespena GFAREN Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 13an onartu zuen (2018ko apirilaren 6ko GAO).

Plan Berezia horren babesean egikaritu asmo diren egintzen kostu zenbatetsia 95,2 milioi euro da, eta inbertsioa bere gain hartzen duen eragilearen arabera banaketa honakoa da:

	Euroak milakotan
Lurralde-administrazioak (*).....	30.407
Pasaiako Portuko Agintaritz.....	13.792
Eragile pribatuak .....	50.982
<b>GUZTIRA</b>	<b>95.181</b>

(\*) Eusko Jaurlaritza, GFA eta eraginpeko udalak.

## A.14 PASAIKO ZAHARREN UDAL EGOITZA

1986ko udalbatzaren erabaki bidez Pasaiako Zaharren Udal Egoitza fundazio publikoaren estatutuak onartu ziren, zaharrei zerbitzu eta gizarte-laguntza emateko udal eskumeneko egitekoak garatzeko sortutakoa.

### Sarrerak

Erakundearen finantzaketa-iturri nagusia jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntzek osatzen dute, bai Udaletik, bai beste administrazio publiko batzuetatik, eta hein txikiagoan, ematen dituen zerbitzuen ordainetan erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuota eta beste diru-sarrera txikiago batzuetatik. Hain zuzen ere, 2017an kontabilizatutako diru-sarrerek honako xehakapen hau dute:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>535</b>
Egoiliarren kuotak .....	442
Eguneko zentroaren erabiltzaileen kuotak .....	49
Udalak bere gain hartutako soldata-kostuen eragina (*) .....	25
Beste batzuk .....	19
<b>TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>1.065</b>
Udal entitatearen administraziotik (ikus A.7) .....	40
GFAtik: Egoitza .....	867
GFAtik: Eguneko zentroa .....	158
<b>ONDARE SARRERAK</b>	<b>47</b>
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.647</b>

(\*) Ikus langileria buruzko atala.

### Langileria

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2017	AITORT. 2016	LZ	PLANTILLA
Langile funtzionarioen ordainsariak .....	327	291	9	9
Gizarte Segurantzak .....	35	47		
Elkarkidetzak .....	10	9		
Beste gizarte-gastu batzuk .....	2	1		
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>374</b>	<b>348</b>	<b>9</b>	<b>9</b>

Pasaiako Zaharren Udal Egoitzan sorospen-zerbitzu eta osagarriak ematen zituen enpresak -kontratista berriak hartu baino lehenago (ikus 10. espedientea A.18.1)- ez zizkien langileei kontratua betetzeko azken hilabete eta erdiari zegozkion soldatak ordaindu. 2017ko ekitaldian funtzionarioen ordainsari kontzeptuan aitortutako obligazioek 24.904 euroren zenbatekoa barne hartzen zuten, erakunde autonomoak erantzule solidario zen aldetik eraginpeko langileen zati bati ordaindu behar izan zizkienak. Kopuru hori kontratatari jasanarazi zitzaion, ordaindu gabeko hilabeteen ordainsariei zegozkien fakturen kontzeptuan egin beharreko ordainketetatik murriztuaz.

Ekitaldi itxieran 50.000 euroan balioetsi zen ordaintzeke zeuden ordainsarien kontzeptuko pasibo kontingentea, berdinkatzeak egin ahal izateko ordaintzeko fakturarik batere gelditzen ez zela.

## A.15 PASAIA MUSIKAL

Pasaia Musikal Musikaren Udal Fundazio Publikoa 1990. urtean sortu zen. Hasierako estatutuak beste batzuekin ordeztu ziren 2003an (2003ko irailaren 18ko GAO), 2017an indarrean zirautenak. Estatutu horien arabera Pasaia Musikalek zerbitzuko fundazio publiko izaera du, Pasaia udalerrian kultura eta musika-irakaskuntza garatzeko.

### Sarrerak

Erakundea finantzatzen da Udaletik eta beste administrazio batzuetatik jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntza bidez; baita, ikasleek ordaindutako tasa bidez ere. Hain zuzen ere, 2017an kontabilizatutako diru-sarrerak honako xehakapen hau dute:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>318</b>
Ikasleen matrikulak .....	317
Beste batzuk .....	1
<b>TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>575</b>
Udal entitatearen administrazioetik (ikus A.7) .....	337
EAEren administrazio orokorretik .....	238
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>893</b>

### Langileria

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2017	AITORT. 2016	LZ	PLANTILLA
Funtzionarioen ordainsariak .....	162	159	12	7
Gizarte Segurantza .....	43	42		
Elkarkidetza .....	7	7		
Beste gizarte-gastu batzuk .....	1	1		
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>213</b>	<b>209</b>	<b>12</b>	<b>7</b>

2017ko ekitaldi itxieran 5 lanpostu huts zeuden Lanpostu Zerrendan (4 musika-irakasle eta zuzendari-gerente bat), aurrekontuan zuzkidurarik ez zutenak. Langileen egiturazko behar hauek aipatutako ekitaldian kanpoko enpresa bat kontratatuta bideratu ziren (ikus II.1 atala).

## A.16 PASAIKO UDAL EUSKALTEGIA

Udalbatzak 1985eko abenduaren 30ean euskararen sustapen eta hedapenerako eta helduen alfabetatze eta euskalduntzerako fundazio publiko baten estatutuak onartzea erabaki zuen, Pasaiaiko Udal Euskaltegia izenarekin.

### Sarrerak

Erakundea finantzatzeko iturri nagusia HABEtik eta Udaletik jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntzak dira eta neurri txikiagoan, ikastaroetan izena ematen duten matrikulak. Hain zuzen ere, 2017an kontabilizatutako diru-sarrerak honako xehakapen hau dute:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>35</b>
Ikasleen matrikulak .....	35
<b>TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>461</b>
Udal entitatearen administrazioetik (ikus A.7) .....	115
HABEtik .....	346
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>496</b>

### Langileria

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2017	AITORT. 2016	LZ	PLANTILLA
Funtzionarioen ordainsariak .....	343	343	12	(*) 9
Gizarte Segurantzza .....	94	92		
Elkarkidetza .....	10	9		
Beste gizarte-gastu batzuk .....	1	2		
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>448</b>	<b>446</b>	<b>12</b>	<b>9</b>

(\*) 2 programako bitarteko funtzionario barne hartzen ditu

## A.17 PASAIKO KIROLAREN UDAL PATRONATUA

Pasaiaiko Kirolaren Udal Patronatua 1993an sortu zen, Udalbatzak estatutuak onartu ostean, urte bereko martxoan indarrean sartu zirenak. 2017ko ekitaldian erakunde autonomoak ez zuen jarduerarik, baina desegin gabe zegoen.

## A.18 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

### A.18.1 2016KO EKITALDIAN INDARREAN ZEUDEN KONTRATUEN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioetako gastuen hamaika kontratuko lagin baten bidez: Udalak kontraturiko zortzi kontratu, Pasaia Zaharren Udal Egoitza erakunde autonomoak bi eta Pasaia Musikal erakunde autonomoak beste bat:

AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK					Euroak milakotan	
KONTRATUA	ESLEIPENA			GASTUA 2017	AKATSAK	
	DATA	PROZED.	ZENBAT.		A	B
<b>OBRAK</b>						
1. Molinao-Itsasadarra eremuaren urbanizazioa Antxora eta Pabinsara sartzeko biribilgunean .....	oct-16	Abierto	401	322	A3	B1,2
2. Ipar Antxoko hirigunea urbanizatzea C-6. Fasea .....	abe-16	Irekia	437	429	A3	B1,2
<b>ZERBITZUAK</b>						
3. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.....	mai-17	Irekia	AP	393	A2,3,5	B4
4. Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzea ingurune irekian bazterkeria-arriskuan dauden gazte eta adingabeekin .....	jun-14	Abierto	262	183	A2,5	B3
5. Pasaia udal haur-eskolaren kudeaketa.....	ira-14	Irekia	(1) 59	170	A2,4,5	B3
<b>ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA</b>						
6. Arrokaundieta Udal Aterpetxearen kudeak. eta animazioa	eka-16	Irekia	(2) Kanona	103		
<b>HORNIDURA</b>						
7. Irrati bidez irakur daitezkeen ur-kontagailuak .....	aza-17	PGPN	AP	55		
<b>PRIBATUA</b>						
8. Ondarezko erantzukizun eta kalteen aseguruak Pasaia Udalaren eta bere erakunde autonomoen ondasunetan ...	eka-17	Irekia	87	22		
<b>UDALA GUZTIRA</b>			<b>1.246</b>	<b>1.677</b>		
<b>ZERBITZUAK</b>						
9. Sukalde-jantoki zerbitzua.....	abe-15	Irekia	AP	221	A2,5	
10. Sorospen-zerbitzuak eta osagarriak .....	eka-17	Irekia	1.254	258	A2,3	B4
<b>PASAIKO ZAHARREN UDAL EGOITZA GUZTIRA</b>			<b>1.254</b>	<b>479</b>		
11. Zuzendaritza administratibo, administrazio eta musika irakaskuntzako zerbitzuak .....	eka-93	Zuzena	AP	592	A1	B4
<b>PASAI MUSIKAL GUZTIRA</b>			<b>-</b>	<b>592</b>		

(1) AKPPK aurreikusten zuen zerbitzua finantza zedila beste administrazio publiko batzuek eman zitzaketen diru-laguntzekin, erabiltzaileek ordaindutako tasekin eta udalaren 19.704 euroren urteko ekarpenarekin. Kopuru hau bat dator Udalak 2017ko ekitaldian jasandako gastu garbiarekin, tasa eta diru-laguntzengatiko diru-sarrerak deduzitu ondoren.

(2) Esleipendunari ordaindutako kopurua da erabiltzaileek ordaindutako tasak (ikus A.3), hileroko kanona eta ostatu emateगतिको tasen % 50 deduzitzearen ondorio, BABAn aurreikusitakoari jarraikiz.



Euroak milakotan		
AKATSAK	ESPEDIENTE KOP.	ESLEIPEN ZENBATEKOA
<b>A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA</b>		
1. Kontratuaren xedea Langileen Estatuaren 43.2 art. aurreikusit. egoeretara egokitzen da .....	1	AP
2. Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideetan akatsak .....	5	1.575
3. Pleguetan eta esleipen ebazpenetan zenbait informazio ez barne hartzea .....	4	2.092
4. Lan negoziazioaren esparruarentzat gordetako alderdiak pleguetan arautzea .....	1	59
5. DBLO betetzeari dagozkion erabakiak kontratuan ez barne hartzea .....	4	321
<b>B EGIKARITZA</b>		
1. Kontratua betetzean atzerapenak .....	2	838
2. Obra-ziurtagiriak ordaintzean atzerapenak (SPKLTBren 216. art.) .....	2	838
3. Epez kanpoko luzapenak .....	2	321
4. Kontratu-estaldurarik gabe egindako gastuak .....	3	(*) 1.069

(\*) Kontratu estaldurarik gabe egikaritutako gastuaren zenbatekoa.

## A.18.2 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIORIK GABEKO GASTUAK

Kontratu txikiaren prozedura bidez gauzatuako kontratazioak aztertzean ikusi dugu zenbait prestaziotan, zenbatekoa aintzat hartuta, prozedura negoziatua izapidetu behar zatekeela, publikotasuna eman ez edo gabe.

PUBLIKOTASUNDUN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ IZAPIDETZEKO KONTRATAZIOAK	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Zenbat.
Ibilgailu eta tresneria konpontzea.....	121
Familiak esku hartze programak .....	81
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>202</b>
Garbiketa zerbitzuak .....	107
<b>PASAIKOA ZAHARREN UDAL EGOITZA GUZTIRA</b>	<b>107</b>

PUBLIKOTASUNIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ IZAPIDETZEKO KONTRATAZIOAK	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Zenbat.
Elementu elektrikoak instalatu, muntatu eta desmuntatzea.....	99
Gasolioaren hornidura .....	61
Errotulazio- eta publizitate-lanak.....	55
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>215</b>



## HKEEAK PASAIKO UDALAREN 2017. URTEALDIRAKO FISKALIZAZIO-LANAREN ONDORIOEN ALEGAZIOAK

### II.1 LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### PERTSONALA:

*“1. Udalak iritzi zion 2017an bi langileri ordaindutako erretiro aurreratuko sariak -36.780 eurorenak- PFEZtik salbuetsitako laneko etekinak zirela (ikus A.5).”*

#### ALEGAZIOA:

2016ko urtarrilaren 1eko ondorioekin PFEZari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 FA aldatu zen, eta 9.5. artikuluari hirugarren paragrafo bat gehitu zitzaion:

*“Zerbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, herri administrazioek Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietakoa batean oinarrituta giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoak parekatuta egongo dira kaleratze kolektiboekin eta arrazoi objektiboetan oinarritutako kaleratze edo kargugabetzeekin.”*

Udalhitz da Euskadiko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, eta 95.1. artikuluan honako hau ezartzen du: “Giza baliabideak arrazionalizatzeko esparruan eta horren helburuarekin adinagatik borondatezko erretiroa hartzeko prima berezia ezartzen da Erakundeko funtzionarioarentzat...”.

Pasaiako Udalak Udalhitzaren marko orokorrari atxikitzeko akordio irmoa hartu zuen 2008ko abenduaren 30eko udalbatzarrean (2009/01/30eko GAO). Marko orokor horri giza-baliabideen plan estrategikoaren izaera eman zitzaion, beraz, salbuetsitatzeko ziren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezartzen denarekin bat, izan ere, horretan ezartzen zen herri-administrazioetako giza-baliabideen plan estrategikoen ondorioz langilea kaleratzeagatik edo lana uzteagatik emandako kalte-ordainek izaera hori zutela.

2017ko ekitaldiaren hasieran IZFE informatikako foru-elkartearen zirkular bat jaso genuen, eta horretan jakinarazten zitzaigun 2016an Ogasunak onartu zuela PFEZetik salbuestea erretiro aurreratu edo uko-egite sarituagatik jasotako kalte-ordainak, 2016-01-01etik aurrerako ondorioekin, eta META4 programa legearen aldaketa horri egokituko zitzaiola.

Bestalde, Pasaiako Udalak Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztu dituen borondatezko erretiro aurreratuagatik eman diren kalte-ordain horiei dagozkien 190 eta 10T ereduak, eta horietan salbuetsitako kalte-ordain gisa jaso dira, eta PFEZa ordainarazteko eskumena duen administrazio horrek ez du horri buruzko inolako errekerimendu edo oharrik egin; are gehiago, Foru Araua aldatu du, salbuespen hori atzeraeraginez aplikatzeko 2014 eta 2015 ekitaldiei.

## KONTRATAZIOA

*“2. Honako hauek aztertu dira: kontratu bat (11. espediente A.18.1ean), Lanpostu Zerrenda eta Pasaia Musikalen plantilla (ikus A.15) eta ondorioztatu da kontratu horren helburua dela erakunde autonomoko langileen egiturazko beharrak betetzea, ez baititu jarduera garatzeko beharrezko diren baliabideak (Langileen Estatutuaren 43.2 artikulua).”*

### ALEGAZIOA:

Kontratuaren prestazioak barne hartzen ditu honako zerbitzu hauek: zuzendaritza administratiboa, administrazioa eta musika-irakaskuntza. Kontratuaren helburua ez da langile-premia estrukturalak betetzea.

Hala ere, eta Lanpostuen Zerrendan lanpostu hutsak badirenez, Langileen Zerrendan hutsik dauden lanpostuen eginkizunak dauzkaten giza-baliabideen premia izanez gero; lanpostu horiek bete behar dira, premia horiek kontratazio administratiboaren bitartez estali behar; salbu Lanpostuen Zerrendatik amortizatzea erabakitzen denean, beharra desagertu dela jotzen bada.

Udalak adierazi behar du kontratu hori espresuki salatu dela, “Pasaia Musikal” Pasaiaiko Udal Fundazio Publikoaren Batzordeak 2018ko ekainaren 28an emandako ebazpenaren bidez, zerbitzu hori sektore publikoko kontratuen araudiaren arabera esleitu dadin. Aurrekoarekin bat, Pasaia Musikalek eta Pasaiaiko Udalak lizitazioa arautuko duten baldintza-agiriak prestatzen dihardute. Baldintza-agiriak, besteak beste, Auzitegiak adierazitako alderdia jaso eta konpondu beharko du.

Bestalde, Fundazioaren desegitea Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 5ean hartutako akordioaren bidez onartutako Kudeaketa Planaren barruan kokatzen da (4. dok.), honako ekintza-ildo honetan: erakunde autonomoak birdimentsionatzea. Eta hori une egokia izango da deskribatutako egoera konpontzeko.

*“3. 2017ko ekitaldian 3 zerbitzu-prestazioei zegozkien 1,4 milioi euroren gastuak egikaritu ziren, behin kontratuen iraunaldia amaitua zela (3, 10 eta 11 espedienteak A.18.1ean). Lehenengo bi kontratuetan gastua egikaritu da kontratu berriak indarrean sartu aurretik, 2017ko maiatzean eta ekainean esleitu zirenak, hurrenez hurren. Hirugarren kontratua, berriz, 1993az geroztik luzatzen ari da, zerbitzu-kontratuatarako administrazioko kontratazio-arautegiak zehazten duen 6 urteko gehieneko iraunaldia nabarmen gaindituta.”*

### ALEGAZIOA:

Etxez etxeko laguntza zerbitzuari eta Zaharren Egoitzako laguntza-zerbitzuari eta zerbitzu osagarriari dagokienez, 2016-7-20 eta 2016-10-4ko dataz hurrenez hurren, erabaki zen horiek espresuki salatzea; hala ere, erabaki zen orduko kontratistek zerbitzua ematen jarraituko

zutela, harik eta zerbitzua berriz esleitzeko bideratu beharreko kontratazio-espeditentea bukatu arte. Kontratazio-espeditente horiek ondo amaitu ziren 2017ko ekitaldian bertan.

Zerbitzua berriz esleitu arte egungo kontratistak zerbitzua ematen jarraitzeko betebeharra adosteko oinarriak ezarrita daude 1955ko ekainaren 17ko Dekretuaren 128.1.1 artikuluan. Dekretu horren bidez onartu zen Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua, egun indarrean dagoena; eta erregelamendu horrek ezartzen dio zerbitzua emateko betebeharra esleipendunari, esleipenean xedatutako eran, edo ondoren korporazioak agindutako eran. Horrez gain, hainbat epaietan jasota daude oinarri horiek: Auzitegi Gorenaren 7263/1986 epaia, 1986-21-20koa, edo 1986ko azaroaren 18koa. Beste epai batzuk ere aipa daitezke: Auzitegi Gorenaren epaia, 1998ko abenduaren 1ekoa; Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2003-10-31ko epaia; edo Espainiako Auzitegiak 2002-05-21ean emandakoa. Ildo berean, aipa daiteke Kanarietako Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen 4/2016 txostena. Egun aukera hori ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4. artikuluan.

Administrazio-zuzendaritza, administrazio eta musika-eskolak emateko zerbitzuei dagokionez, aurreko atalean adierazitakoa hartu behar da kontuan.

*“4. Udalak eta Pasaiako Zaharren Udal Egoitza erakunde autonomoak zerbitzuetarako prestazioei zegozkien gastuak kontratatu zituzten, hurrenez hurren 202.324 euroren eta 106.812 euroren zenbatekoan, esleipen-prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLTBren 86.2 artikuluan jasotakoa urratuta (ikus A.18.2).”*

#### ALEGAZIOA:

Ibilgailuak eta makineria konpontzeko zerbitzuak, errotulazio eta publizitate lanak, familian esku-hartzeko programak, eta elementu elektrikoak instalatu, muntatu eta desmuntatzeko zerbitzuak kontratatzeari dagokionez; Udalak hitzematzen du zerbitzu horiek lizitatuko dituela, eta eskura dituen bitartekoak erabiliko dituela, egoera ahalik eta azkarren aldatzeko; hala ere, prestakuntzako barne-lanak egin dira jada (baldintza-agirien zirriborroak prestatu), familian esku hartzeko programen kontrataziorako.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Kontrataziorako Zentralak material elektrikoari dagokion espeditentea lizitatu du; beraz, Udalak hitzematzen du kontratu hori zuzenean lizitatu, edo zentral horren bidez esleituko duela, hurrengo lizitaziorako atxikipen-epea irekitzen denean.

Bestalde, HKEEren txostenean hau adierazten da: “en la revisión realizada de contrataciones efectuadas mediante el procedimiento de contrato menor...” Bada, Pasaiako Zaharren Egoitzako garbiketa-zerbitzuaren kontratazioari dagokionez, zerbitzuaren esleipena egiteko lizitazioa bideratu zen, herri-administrazioetako kontratazioari buruzko araudiarekin bat; kontratuaren indarraldia 2016-12-31n amaitu zen, eta epe hori bukatu

aurretik erabaki zen kontratistak zerbitzuan jarraitzea, zerbitzua berriz esleitu arte; hain zuzen ere, 2017ko ekitaldian bertan esleitu zen<sup>1</sup>.

Bestalde, eta gasolioaren hornikuntzari dagokionez, Udala berriki atxiki zaio automozioeko erregaien hornidurarako akordio-esparruari (2019ko apirilaren 25eko Alkatetzaren 668/2019 ebazpena, 9.dok.), Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralaren bidez; beraz, hornikuntza hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitan bideratzen ari den kontratazio-prozeduratik eratorritako esleipendunak egingo du.

Bestaldetik, Udalak kontratu horiek lizitzatzeko asmoa duela (Kontratazio eta Kontuhartzaitza sailetan ere adierazi dute behar hori) agerian geratu da berriki onartutako Lanpostuen Zerrendan, kontratazio-teknikari lanpostua sortu baita. Lanpostuen Zerrenda horri hasierako onarpena eman zitzaion, eta 2019ko maiatzaren 21eko GAO-n argitaratu zen. Lanpostuen Zerrenda onartzeko Udalbatzaren akordioan honako hau adierazten zen hitzez hitz: "...Udal honi ematen zaizkion zerbitzu eta hornikuntzek arlo publikoari buruzko legeria bete behar dute, bereziki Sektore Publikoko Kontratuari buruzko 9/2017 Legeak ezarritakoa.

...Esan beharra dago Udalak badituela behin eta berriz bete beharreko zerbitzu eta hornikuntza batzuk, eta errepikatu egiten direnez, legea behar bezala betetzearren, egokiagoa da dagozkion kontratazio-prozedurak bideratzea. Gainera, kontuan izanik aurrerantzean lizitazioak elektronikoki egingo direla, dagozkion espedienteak Euskadiko Kontratazio Elektronikoaren Plataforman sartze aldera, guztiz beharrezkoa da lan hori egingo duen langile bat izatea...".

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

*"1. Uraren hornidura eta saneamenduari dagozkion sarrerak zuzen erregistratzeko, gehitu egin behar lirateke 2017ko abenduaren 31n aktibo arrunta eta balantzearen funts propioak 365.324 euroren zenbatekoan (ikus A.3)."*

### ALEGAZIOA:

Udalak azken lauhileko ur-horniduraren eta saneamenduaren errolda hurrengo ekitaldiko otsailean onartzen du; beraz, itxieraren aurretik, dagokion ekitaldiko ondare-kontabilitatean kontabilizatu litezke sarrera horiek; aurrerantzean hala jardungo dugu.

*"2. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2017ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera jasotzen duten, ezargarriak zaizkion balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8)."*

<sup>1</sup> Garbiketa-zerbitzuaren kasuan: adostutako luzapenak ez du baliorik, kontratua jada lege baimendutako adina aldiz luzatua baitzen.

ALEGAZIOA:

Udalak badu ondasun eta eskubideen inbentarioa; hala ere, ondasunen balorazio ekonomikoa ez da berria, eta horrek datuen fidagarritasunari eragiten dio. Horregatik ez dira balio horiek zuzenean islatzen ondare-kontabilitatearen ibilgetu ez finantzarioan.

2016an indarrean sartu zen 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena, eta Udalak ibilgetuaren saldoak arautzeari ekin zion, dekretu horretan jasotako printzipio eta balorazio-arauen arabera –merkatuekiko konparazioak kostu historikoak baino lehentasun gehiago du orain, eta aktiboak erregistratzean erabilera da orain irizpidea, eta ez da jabetza–. Horretarako, Kontuhartzaitza Saitetik ondasunen inbentario zehatza eta banakakoa egin zuen, udal ondasunen inbentariotik eta azken 10 ekitaldietako obra berrien aurrekontu-egikaritzetik abiatuta. Lursailak izan ezik –horien balorazio-iturri fidagarririk ez zegoen–, udal inbentarioko ondasun guztiak sartu ziren, eta horiek merkatuko prezioen arabera balioetsi ziren (higiezin eta ibilgailuentzako polizetan aseguratutako balioa), eta eskurapen-balioaren eta kontabilitateko amortizazio metatuaren arabera, azken 10 ekitaldietako obra berrietarako.

2016an egindako erregularizazio horretatik abiatuta, ibilgetuaren igoera dakarten egintza guztiak kontabilitatean islatzen dira, eta dagozkion amortizazioak ere egiten dira; eta elementu bakoitzaren banakako jarraipena egiten da; beraz, uste dugu, lursailetarako esandakoa alde batera utzita, ibilgetu ez finantzarioaren eta amortizazio metatuaren saldoek Udalaren ondasun eta eskubideen benetako egoera islatzen dutela, aplikagarriak zaizkien printzipio eta arauekin bat.

*“3. Pasaiako Zaharren Udal Egoitza, Pasaiak Musikal eta Pasaiako Udal Euskaltegia udal erakunde autonomoen 2017ko abenduaren 31ko Balantzeen aktibo ez arruntak Udalak haiei lagatako eraikinen balioa soilik jasotzen du, 2016ko ekitaldi hasieran kalkulatu zena. Erakunde autonomoek ez dute ibilgetu hori amortizatzeko zuzkidurarik jasotzen.”*

ALEGAZIOA:

Erakunde autonomoen ibilgetuari dagokionez, aurreko atalean aipatutako irizpide berari jarraikiz, Udalak 2016an ibilgetuaren saldoak arautzeari ekin zion, 86/2015 FDren printzipio eta balorazio-irizpideekin bat –merkatuekiko konparazioak kostu historikoak baino lehentasun gehiago du orain–. Erakunde autonomoen higiezinak arrazoizko balioetan baloratu ziren (polizetan aseguratutako balioak), eta eskurapen-prezioa ez zenez, ez zen egokitzat jo higiezin horiek amortizatzeko zuzkidurak egitea urtero.

*“4. Kontu Orokorrak ez ditu Pasaiako Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoaren kontularitzako egoerak barne hartzen, jarduerarik ez badu ere, desegin gabe dagoena (ikus A.17).”*

ALEGAZIOA:

Pasaiaiko Udal Kirol Patronatuaren desegitea jasota dago 2018ko martxoaren 5ean Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Kudeaketa Planean, honako ekintza-ildo honetan: erakunde autonomoak birdimentsionatzea. Birdimentsionatze horrek lau erakunde autonomoei eragingo die, bereziki, Pasaiaiko Udal Kirol Patronatuari; izan ere, patronatu horrek ez du zentzurik, inoiz ez baitu ez aurrekontu eta ez jarduerarik izan; eta hainbat txosten teknikotan horren berri eman den arren, oraindik ez da patronatua desegin.

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

*“2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2016ko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, 21/2003 FAren 15.2 artikulua agintzen duen moduan.”*

ALEGAZIOA:

2017ko ekitaldirako aurrekontua 2016ko abenduaren 20ko udalbatzarrean onartu zen behin-behinekoz, eta 28an argitaratu zen GAOn; abenduaren 31ren ondoren onartu zen behin betiko.

*“Pasaiaiko Zaharren Udal Egoitza eta Pasaia Musikal erakunde autonomoek 2017ko aurrekontuek ez zituzten nahitaezko langileriaren eranskinak jasotzen, aurrekontu-plantilla osatzen zuten lanpostuen zerrendarekin (21/2003 FAren 6.2.i artikulua).”*

ALEGAZIOA:

Aipatu erakunde autonomoen 2017ko aurrekontuak ez zuen pertsonalari dagokion eranskina jaso, Pasaia Musikalen kasuan I. kapituluak aurreko ekitaldiaren berdina zelako, eta bi erakundeek plantilla organikoetan ez zelako aldaketarik izan aurreko ekitaldiarekiko. Hala ere, 2018ko ekitaldirako eta hurrengoetarako egindako aurrekontu-proiektuaren espedienteek badauzkate pertsonalari dagozkion eranskinak, eta horietan erakunde autonomo bakoitzerako aurrekontu-plantillak jasotzen dira.

*“2017ko ekitaldian Udaleko eta Pasaiaiko Udal Euskaltegia erakunde autonomoko funtzionarioen aurrekontu-plantillek ez dituzte kreditu zuzkidurak zerrendatzen oinarritzko ordainsari, lanpostu mailako osagarri eta berariazko osagarriaren arabera antolatuturik.”*



ALEGAZIOA:

2019ko ekitaldian Lanpostuen Zerrenda Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 15.2. artikulua araberan egokitu da, eta behin Lanpostuen Zerrenda berria onartu ondoren, behar bezala zerrendatuko dira kreditu-zuzkidurak, legezko kontzeptuak jasoz.

### III.2 SARRERA FISKALAK

*“Udalak ez dizkie zergapekoei berandutza interesak likidatzen epez kanpo egindako ordainketengatik, nahiz Udalbatzak onartutako zerga eta tokiko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk kudeatu, bildu eta ikuskatzeko ordenantza orokorrak eta GLHko martxoaren 8ko Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorraren 26. artikulua besterik xedatzen duen.”*

ALEGAZIOA:

Udalak berandutze-interesak likidatzen ditu, soilik zatikatzeko edo geroratze-planei dagozkien ordainagiritan, edo eskuz kalkulatu direnetan. Epe exekutiboko gainerako zorren ordainagiriak IZFE foru elkartearen programa informatikoaren bidez kalkulatu dira, eta egun erabiltzen den programarekin ezin dira ordainagiriaren erregistro eta kontabilizazio prozesu automatizatuak egin berandutze-interesak dauzkaten ordainagiriak kobratzeko, eta ordainagiri-mota horiek (epe exekutiboko diru-bilketa osoa) eskuz ordaindu beharko lirake.

Programak egunero prozesu bat egiten du, ordaintzeko dagoen ordainagiri bakoitzean sortutako interesak berriz kalkulatzeko, eta zenbatekoa egunero aldatzen da, zorra bizirik dagoen bitartean. Hala ere, kobratutako ordainagiri buruzko informazioa, bai entitate laguntzaileetan eta bai ordainketa-pasabideetan kobratutakoena, hilean bitan jasotzen da, eta ez egunero. Ordainagiriaren kobrantzari buruzko informazioa jasotzen denean ordainagiri egin eta handik egun batzuetara, zenbateko ezberdina dute, egun horietan sortutako interesengatik; beraz, ezinezkoa da kontabilizazio automatikoa egitea, eta ordainagiri horiek guztiak eskuz ordaindu beharko lirake (3.399 ordainagiri 2017an). Hori dela eta, eraginkortasun-printzipioaren arabera, kontabilizazio automatikoa lehenetsi da, berandutze-interes horiek epe exekutiboko zorren sortzen duten inpaktua txikia baita. Gainera, epe exekutiboko zorretan dugun batez besteko kobragarritasunaren ehunekoa dela-eta, berandutze-interesen diru-bilketa igoera askotan konpentsatu egingo litzateke zor nagusiaren kobrantza txikiagoarekin; izan ere, ez dirudi litekeena denik zor horien %100 kobratzea.

